

JOSEBA INTXAUSTI

Gipuzkoako Seguran jaioa 1936-ko uztailaren 20-an. A. Frantziskotarra. Filosofia eta Letrak estudiatzen ari da Barcelona-n. Euskaltzain laguntzailea. Aldizkari askotan idatzi du, batez ere *Jakin*, *Egan* eta *Aranzazu*-n, era askotako gaiez. Aditz estudioz bi liburu ditu: *Euskal-aditza* (1960) eta *Las siete lecciones del Euskal-aditza* (1965).

Saririk aipagarriena: 1965-ean Santiago de Compostela-n euskal unibersitarioentzat egin zen poesi sariketan lehenen atera zen.

ZAZPIKATUETA-KO EZBEHARRAK

Zazpikatueta-n izan ahal zarete inoiz? Zazpikatueta ibar bitxi eta arraroa da, izan ere bertako biztanleak ez dira gizakiak, katuak baizik. Katarte honek ba ditu, beraz, zenbait jakingarri aparteko, benetako gizartea, barka, katartea baita, bere hauzo, agintari eta guzti.

Zazpikatueta-ri bere zazpi hauzoek eman diote izena. Erroma-ko zazpi muinoei bezalatsu gertatzen zaio Zazpikatueta-ri ere: ezer guti dakigula, alegia, hauzo hauen jaiotza eta jatorriaz. Alegia eta ipuin zaharrek diotenez, hauzo bakoitzari izena lehenen katu arbasoagandik datorkio. Zazpi katategiak Uxkoa, Bix, Ñar, Abar, Lladi, Beñar eta Xuro dire, hauzoak eraiki zituzten lehen katuak bezalaxe.

Zazpikatueta-ko ibarrak, hain berezia izanik ere, ba ditu prolema eta arazo xebleagorik. Bi aipatu nahi nizkizueke gaur: bata, Baosadi ibaiarena da;

bestea, miauerarena. Dirudienez, antzina batean, Zazpikatueta ibarretik ez zen inolako errekarik igarotzen; bainan, zazpi hauzoen zoritxarrerako (hala dio behintzat miaueraz katakumeei kontatzen zaien ipuin batek), pantano lehertuaren uholde izugarri hura etorri zenez gero, Baosadi ibaiak banatzen ditu, bi herrialdetan, Zazpikatueta-ko hauzoak: Abar, Ñar, Bix eta Uxkoa batetik; Beñar, Xuro eta Lladi bestetik. Harrez gero, Baosadi-k banatutako bi lurraldeok ez daukate elkar-adiskidantza handirik; izan ere, zubirik ezean eta katuak hain ur-higuin direla, bakoitzak nahiago du bere aldetik ibar-kanpokoekin hartu-emanetan bizi. Beraz, erreka madarikatu batek zatitu du Zazpikatueta, baina, entzuna dugunez, katu gazteek ez daude konforme egoera aldrebes honekin: zubiak egin nahi dituzte, era askotako zubiak, Laukatueta eta Hirukatueta elkar daitezten. Zubi-gogo honek asal-datuta eta haserre bizitan darabilki Zazpikatueta osoa.

Ba da beste eztabaida bat ere: Zazpikatueta-ko hizkuntzari dagokiona, esan nahi dut. «Miauera» deitzen diote zazpikatuetarrek mintzairari. Ez dakj inork non jaioa den hizkuntza hau; baina, jatorriaren ezjakina gora-behera, miaueraz mintzatzen dira bailarako katu gehientsuak. Ez guziak, ordea. Zoritxarrez, Zazpikatueta-n ez da nonahi miauera berdina egiten. Bai zera! Eta hortik datoz eztabaidarik traketsenak, gorrotagarrienak, zazpikatuetar bakoitzak bere iritzi irmoa baitu miauerari buruz. Arlo honetan inon guti aurkituko genuke herri jakinagorik. Eztabaida hauetan, dirudienez, guziak dira hizkuntzalari trebe eta miau-

era sakon-sakoneraino ezagutzen dutenak: miauerarekiko bilkura hauetan ez da erraz ikasiak eta ezjakinak nabaritzea, denak baitira jakintsu. Zazpikatueta-n ez da, beraz, beste gure herrietan bezalakorik gertatzen: han ez da alfabetatze beharrik, guziek baitakite irakurtzen eta literaturaz mintzatzen eta filologia berrienaz baliatzen. Miauerari buruzko bilerak dira munduko kongresorik harrigarrienak.

Zazpikatueta-n nornahik dauka miaueraren salbaidia, ibarrean hizkuntza hau hiltzen badoa ere. Izan ere, hauzo bakoitzak du miauera aparteko eta ederreana eta jatorrena. Batez ere, jatorrena. Honegatik, hauzotarteko eztabaidetan ezin dute on-hartu ondoko hauzoetan darabilten miauera-modua, ez baita bera jatorrena. Holakoetan, elkar konpreni dezaten «hau-hauera» erabiltzen dute zazpikatuetar katuek, alboko ibarretako mintzairak, alegia. Gainerako eztabaidetan bat ez badatoz ere, puntu honetan nahiko konforme daude.

Hirukatueta-koek mi**h**aueraz ari direla esan ohi dute Laukatueta-ko batzuek ere mi**h**aueraz egin behar litzakeala esaten hasi dira. Laukatuetar miauera baztertu nahi honek sekulako haserreak piztu ditu oraintsu uxkoarren artean, eta Uxkoa-ko katu anitz miao bizitan dabiltz eta Baosadi gainetik egin nahi ziren zubien kontra ere ekin diote, zubi horiek Hirukatueta-ko mi**h**auerera Laukatueta-ra sartuko dutenaren susmo gaiztoa baitaukate Uxkoa-n. Uxkoar zahar askok diotenez, miauera eta mi**h**auerera artean ez da alde handirik, bainan jakina da zirrikitu ttipitik etsai

handia ere sar daitekeala. Beraz, hobe da zubirik ez egin.

Mihauera-zaleentzat zubiok betebeharrak apartekoa dute. Elkarrekin, benetako elkarrekin esan nahi du asmo horrek. Zubiak derrigorrekoak dira, beraz, eta mihauerazaleek bakarrik egin ditzakete behar bezala. Laukatueta-ko mihauerazale jakintsuak ez dira guti berotzen honelako zozokeria (hala dela diote) entzutean.

Dena dela, geroz eta argiago dago, Zazpikatueta-ko katuerekin (nahiz mihauera nahiz mihaurera izan) etsairik gogorra kanpotik datorrela. Izan ere, ondoko ibarretik sartzen ari den «hauhauera» da katuera hilko duena, mihauera nahiz mihauera ez baitaitezke inolaz ere hauhauerarekin elkartu. Hemen ere katu-zakurren arteko ezinikusia dago bizirik. Zazpikatueta-n hizkuntza jatorra nahi dute, eta jatorrasun honen bila dabiltz aspalditxotik.

Mihauera jator honen ametsetan egin dira azken gizaldian benetako entsegu batzuk. Bix hauzoko katu nagusi batek ekinda, *mihauera garbia* sortu zuten bixtarrek, eta inguruko hauzo batzuetako zenbait jakintsuk ontzat eman zuten. Katuera berri hau garbia zen, herbesteko hauhaueraren kontra-kontrakoa. Akats bat bakarra zedukan: Zazpikatueta-n ez zen ulertzen eta, Hirukatueta-n bereziki, mihauera garbi hori alferkeria eta amets gaixto bat zela pentsatzen zuten. Zazpikatueta-n, ba, katuera garbiaren hiletak egin berriak dituzte.

Azken aldian, mihauera garbiaren ordez *mihauera jatorra* egiten hasi dira Zazpikatueta-ko jakintsu berri

batzuk. Ez dute, garbizaleek bezala, miauera berririk sortu nahi, ba dakite hizkuntzak asmatzea bidezko ez dena, jende nahiko ikasiak baitira. Eta jakitunak direnez, egitekorik miragarrienak burutu nahi dituzte: hildakoak piztu, Baosadi ibar-gora eraman eta kondairarik zaharrena buruz behera gaurraldian murgildu. Eta miauerari gagozkiola, asmorik bikainenak daduzkate: Zazpikatueta-ko bi lurraldeek elkar konpreni dezaten, mihauera jatorrenean izkribitu nahi dituzte eguneroko eta liburuak.

Jatorzale batzuntzat bederen, bizpahiru idazle zaharren mihauera da katuerarik jatorrena. Uxkoar gehienak ez daude iritzi honekin konforme, eta beharbada ezta hirukatuetar anitz ere, bainan, jatorzale-talde berezi horrek dionenez, liburu zaharrak aztertu ez dituztelako da hori. Zazpikatueta-ko gaurko idazlerik bizienak mihauera bakar bat nahi dute beren liburuetan. Honetaz konforme dira denak, baina ez zer-nolako mihauera behar litzakean erabakitzean. Aipatu ditugun jatorzale berezi horiek antihoaleko mihauera zahar bat nahi lukete, hura baita, diotenez, jatorrena. Zoritxarrez, bi liburu zaharretan bakarrik aurkitzen da mihauera klasiko hori, eta Zazpikatueta-n ez dituzte ezagutzen liburuok.

Gaurko Zazpikatueta-ren etorkizuna nahiko ilun ikusten da. Hildako idazleek ez dute sepulturetatik jeiki nahi; Baosadi oraindik ere ibar-behera doa eta zubiak beharko dira Laukatueta-tik Hirukatueta-ra pasatzeko, eta, anitzek uste duenez, arbasoen mihau-

era ikastea baino samurrago izango da kondaira zehar
jaio den *gaurko mihauera bateratua* ikastea.

(ARÁNZAZU *aldizkariaren 471 zenbakitik hartua.*
1970-eko otsailekoa)

AINGERU IRIGARAY

Nafarroako Bera-Bidasoan sortua 1899-ko martxo-aren lehenengoan. Midikua. Euskaltzaina. Julio Urkixo Mintegikoa. Eusko-Ikaskuntza-ren azken batzorde mahai buruko izana. Aspaldiko urteetan euskal-kulturazko eta euskerazko aldizkaririk gehienetan kolaboratu du. Inbestigazio eta itzulpen asko egin ditu, alemanetik eta frantzesetik gaztelerara eta hoietatik euskerara ere bai. *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* (1958) lanaren biltzailea, *Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana* (1965) saiakeraren egilea, *Jostatuz mintzaira ikas*, Méndez Gracia-n, Eskola liburua-ren euskeratzailea, eta *Egan* aldizkariko zuzendarietariko delarik, bere gain du *Naas-maas* izeneko saila. Bai hontan eta bai euskal letretan, ezagunagoa dugu «Apat-Etxebarne» izenordez. Gainera, bera dugu Euskal Alfabetatze taldeen buru.

OROITZAPENAK

GAYARRE KANTARIA IRUNEN (1)

Denek dakigu Julian Gyarre, ospe handiko tenor bat izan zela, bainan oraingo gazteek behar bada ez-

(1) Irakurgai hau, beste bi lantxokin batean, Irungo Herri —etxeko Concurso literario (1969) dalakora, presentatua izan zen. (Saririk irabazi gabe)—.